

Europa bi gerren artean

Felipe Juaristi

"Berlin Alexanderplatz"
Alfred Döblin
euskaratzailea: Anton Garikano
Ibaizabal, 2000

Aitortu behar dut gozamina izan dela niretzat liburu hau euskaraz irakurtzea, gozamina izan zen bezala gazteleraz irakurtzea: aspaldiko kontua, ez ahaztua ordea. Berebiziko zirrara, liburu batzuek — onak izan ala txarxak, berdin— soilik lor dezaketena, eta ez jakin zergatik, ez baitago arrazoi sendorik, arrazoimen argitara, enpirismoaren harira, argi dezakeenik. *Virgilioren Heriotza, Ulises, Berlin Alexanderplatz, Gauaren Muturrerainoko Bidaia...*

Garai bateko liburuak dira, gain behera zetorren mundu haundi eta dotore baten oinazetan idatziak. Gizakiak bere galbidean ibili ditzakeen pausoen kronika zehatz eta larriak.

Lehen Mundu gerraren ondorioz sortu eta onduak, odol eta minez, kezka eta antsiak gizenduak berak. Izan ere, europarrak jai batera bezala, dantzara bezala, joan ziren sarraskira, hiltegira zihoazekin jakin gabe noski, ordu arteko gerra-eredua bestelakoa baitzen.

"Bere atzean errepikatzen du danborrak. Aurrera, aurrera. Gerrara goazak. Sendoak urratsak, gurekin ehun atabal zetoazak, egunabarra, ilunabarra, denontzat heriotza bakarra", Döblinen testua da, eta argi adierazten du gerra aurreko giroa nolakoa zen. Hilakintzak eragindako gogoetak bultzatu zituen europarrak ordu artekoaz beste egin eta aurrerabidean gerorako oinarri sendoak jartzera. Baina ez zuten halakorik lortuko, Lehen Mundu Gerraren eta Bigarrenaren arteko denboraldia, atsedean hartzeko soilik izan baitzen, era bateko sarraskira jauzi egiteko abiada hartzekoa hain zuzen.

Bi gerrok, eta Espainiakoa —gurea beraz—, bakarra izan baitziren funtsean. *Berlin Alexanderplatz* edo Franz Biberkopfen istorioa, Europa zer izan den, zer den beraz, ulertzeko lagungarri da.

El Diario Vasco, 2001-03-24